

BESTELAKO XEDAPENAK

LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU ZERBITZU PUBLIKOA

3488

EBAZPENA, 2025eko uztailaren 3koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez zuzentzen baitira Ebazpen honetan antzemandako hutsak: Ebazpena, 2025eko maiatzaren 19koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitara ematen baita gazteak euskal enpresetan ikerketa-proiektuak egiteko kontratatzea helburu duten dirulaguntzen 2025eko ekitaldiko deialdia (Ikerlan programa).

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzen duen abenduaren 23ko 217/2008 Dekretuaren 18.2.c) artikulua ezartzen duenez, argitaratzeko bidalitako testuan dauden hutsak edo omisioak maila bereko xedapen baten bidez zuzenduko dira, baldin eta nabarmenak ez badira eta, horiek zuzentzearen ondorioz, dokumentuaren edukia edo esanahia benetan edo itxuraz aldatzen bada.

Mota horretako akatsak aurkitu dira honako ebazpen honetan: Ebazpena, 2025eko maiatzaren 19koa, Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitara ematen baita gazteak euskal enpresa ekintzaileetan ikerketa-proiektuak egiteko kontratatzea helburu duten dirulaguntzen 2025eko ekitaldiko deialdia (Ikerlan programa), 2025eko maiatzaren 27ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratua (98. zk.). Beraz, zuzendu egin da:

– 2025/2281 orrialdean (15/14), 19. artikulua bigarren paragrafoan,

honela dio:

«Dagokion ekitaldi fiskalean eta aurreko bietan jasotako minimis laguntza horiei buruzko aitortpena egin beharko du laguntza eskatzen duenak, honako hau frogatzeko: minimis laguntza berriarekin ez dela gainditzen aipatutako erregelamenduan ezarritako gehieneko muga.»

hau jarri behar da:

«Aurreko hiru urteetan jasotako minimis laguntza horiei buruzko aitortpena egin beharko du laguntza eskatzen duenak, honako hau frogatzeko: minimis laguntza berriarekin ez dela gainditzen aipatutako erregelamenduan ezarritako gehieneko muga.»

Vitoria-Gasteiz, 2025eko uztailaren 3a.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren zuzendari nagusia,
FRANCISCO PEDRAZA MORENO.